



HONDAKINAK, URA ETA SANEAMENDUA ZERBITZUAREN TASAK ORDAINTEZKO DIRULAGUNTZA

Exdt UHDL

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Hondakinak, ura eta saneamendu zerbitzuren tasak ordaintzeko Hernaniko udalak ematen duen dirulaguntza eskatzeko tramitea

NORK ESKA DEZAKE?

Interesdun den edozein pertsonak edo haren ordezkariak dagokion baimenarekin

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

[-Hondakinak, ura eta saneamendu zerbitzuren tasak ordaintzeko dirulaguntza Inprimakia](#)

Hernaniko Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du, honako hauek egiaztatzeko, Euskadiko Administrazioen Elkarrengarritasun eta Segurtasun Nodoari (NISAE) buruzko informazio-zerbitzuren bidez, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- a) Eusko Jaurlaritzari: diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko kontsulta; Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta Eskuragarri
- b) Foru-ogasunari: errenta-mailari buruzko datuak (PFEZ); Kontu mailari buruzko kontsulta, Ondare mailari buruzko kontsulta; Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- c) GSINri: gizarte-prestazio publikoen kontsulta
- d) SEPEri: langabezia-prestazioen kontsulta.
- e) Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuen kontsulta
- f) Katastroaren Zuzendaritza Nagusia: Katastro datuen kontsulta
- g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Lan ibilbidearen kontsulta; Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

Nola eskatzen da?

Aurrez aurre: hhz-Herriararren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00**.

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuaren astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

📞 **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

🌐 **Internet:** www.hernani.eus web orriaren bidez eskaera-orria bete, dokumentazio guztiarekin , TRAMITE ON LINE hasi eta Udaletxean aurkez dezakezu.

✉️ **Posta arrunta:** Posta-bulegoetan, administrazio-posta baten bidez (gutun-azal irekia)

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako	epea:	2	hilabete
Ohiko	prozedura.	Legezko	epea: 6 hilabete.
Administrazio-isiltasunaren izaera: negatiboa			

ARAUDI APLIKAGARRIA:

Ur-hornidura eta zabor-bilketa tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko kudeaketa-arauak

ESKAERA EGIN ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:

- Errenta Departamentuko dokumentazioaren azterketa
- Proposamen teknikoa
- Alkatetzak onartzea
- Interesdunari jakinaraztea

IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN UDAL-SAILA

Errenta-Ogasuna

NORK ONARTZEN DU?

Alkate edo zinegotzi delegatua

OHARRAK

-Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan interesdunak borondatez ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa (errekarguei, kostuei edo interesei dagozkien zenbatekoak ez dira diruz lagunduko).



Hernaniko Udala





- Eman daitekeen diru-laguntza urtebeterako baino ez da ulertuko.
- Diru-laguntza eskabidean emandako kontu korrontean sartuta ordainduko da

DATU PERTSONALEN BABESA

Datuen tratamenduaren arduraduna: Hernaniko Udala

Datuak babesteko ordezkari (DPD): dbd@hernani.eus

Helburu orokorra: Hernaniko Udalak kudeatzen dituen prozedurak eta espedienteak izapidetzea.

Helburu espezifikoak, legitimazioak, hartzaileak: zergak, tasak eta prezio publikoak kudeatzea eta biltzea.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak: eskubide horiek Hernaniko Udalaren aurrean baliatu ahal izango dira. Helbidea: gudarien Plaza 1, 20120 Hernani (Gipuzkoa). Edo www.hernani.eus egoitza elektronikoa. Gai honako hau adierazi beharko da: Erref. Datuen babesa Erreklamazio bat ere aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan: www.avpd.euskadi.eus.

HERNANIKO UDALA, hhz-Herriarren Harrera Zerbitzua

Gudarien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696

e-posta: hhz@hernani.eus | www.hernani.eus



**Hernaniko
Udala**

